

2015-02-24an EGINDAKO  
BILKURA

OHIKO OSOKO

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA  
CORPORACIÓN. Día 24/02/2015

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

Jose María Herce Isasmendi  
Igor Ezpeleta Oregi  
Rosario Arcarazo Arcarazo  
Purificación Regidor Varela  
Juan Luis Merino Sanabria  
Jose Luis Cantero Morcillo

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabosteko otsailaren 24an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ezohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Petralanda jauna, eta Iregui eta Landa andreak.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del 24 de febrero de 2015, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten el Sr. Petralanda y las Sras. Iregui y Landa.

## **1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2014-11-20 eta 2014-12-09.

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2015eko otsailaren 19ra arte hartutako erabakien berri eman da.

Alkateak jakinarazi du joan zen ostiralean amaitu zela 2015eko aurrekontuari alegazioak egiteko epea, eta alegaziorik egon ez denez, horri buruzko iragarkia bidali zela GAOra. Iragarkia argitaratutakoan aurrekontua behin betiko onartuta geldituko da.

Ondoren, jakinarazi du datorren otsailaren 27an 39 urte betetzen direla Saharar Errepublika aldarrikatu zenetik, eta inork ez badu eragozpenik jartzen, bandera jarriko dela udaletxeko balkoian. Inor ez da aurka azaldu.

**Gai zerrendako hurrengo gaia aztertu aurretik, Alkateak adierazi du gai zerrendaren ordena aldatuko duela. AMUSKAKO ordezkaria bertan dagoenez, hitza eman dio berak irakur dezan MARTXOAREN 8ari buruzko erakunde adierazpena.**

## **3.- MARTXOAREN 8-AN EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA-ETA, ERAKUNDE ADIERAZPENA.**

**AMUSKAKO ordezkariak ondorengo testua irakurri du:**

**Erakunde adierazpena, martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta:**

*Emakumeen Nazioarteko Egunean badaukagu zer ospatu eta zer aldarrikatu. Baino, batez ere, nabarmendu nahi ditugu, krisialdiaren aitzakian, botere ekonomiko eta politikoak hartzen ari diren erabakiek pertsonen bizitzetan eta bereziki emakumeengen dauzkaten ondorio lazgarriak.*

*Diskurso ofizialen arabera, krisia sortu da merkatuak errentagarritasuna galdu duelako. Guretzat, ordea, krisian gaude kapitala ezinezko bihurtzen ari delako bizitza duinak izatea. Krisi-egoe-ra honetan, merkatuen errentagarritasuna handitu nahian, austeritate neurriak jarri dituzte martxan, urteetako borrokaren bitartez irabazitako eskubideak galtzeko arriskuan jarri.*

*Ekonomiaren oinarrian etxeko lanak eta zaintza-lanak dauden arren, sistema kapitalistak lan hauek gutxietsi egiten ditu. Ezkutuan geratzen dira, sozialki ez dira errekonozitzen eta ordaindu ere ez. Lan-estatura bera ukatu egiten die, nahiz eta jakin bizitzaren oinarria direla, lan-indarra sortu eta mantentzen duten lanak direlako. Eta ekonomiaren, aberastasunaren eta lanaren kontzeptuak finantzen munduarekin, lan ordainduarekin, lan-“produktiboarekin” lotzen dira, guztiaren erdigunean jarri. Merkatu kapitalista jartzen da ekonomiaren erdigunean eta bizitza honen zerbitzura, alderantziz egin ordez.*

*Etxeko lanen eta zaintza-lanen ardura nagusiki emakumeei ezartzen zaiela kontuan izanda bakanrik uler daiteke emakumeek lan-merkatuan duten leku marginala eta esplotazio bikoitza. Lan-merkatuan emakumeek gizonezkoek baino %24 gutxiago kobratzen dute. Lanaldi partzialetan dau-*

*den %80,9 emakumeak dira. Lan-merkatuak emakumeak mailako langile gisa erabiltzen ditu, haien lekua, nagusiki, etxearen dagoela defendatzen duelako. Sistema kapitalista eta patriarkatua gainditzeko beharra inoiz baino ageriago agertzen zaigu, bizitza ekonomiaren erdigunean jarri ahal izateko, zaintza-lanak errekonozitzeko, sexuaren araberako lan-banaketarekin bukatzeko, bizitza duinak bizi ahal izateko.*

*Martxoaren 8 honetan badugu zer ospaturik, bestalde. Aurreko urteko adierazpenean abortuaren kontrarreformaren mehatxua aipatzen genuen. Mugimendu feministarekin batera gizarteko gehiengo batek egindako borrokari esker erreforma gelditzea lortu dugula ospatuko dugu. Dena den, emakumeon askatasunaren eta aniztasunaren kontrako eraso gehiago helduko dira haurdunaldia borondatez eten nahi duten 16 eta 17 urteko adingabeek, ezinbestean, aitaren eta amaren onespina beharko dutela onartutakoan. Patriarkatuaren zutabea den familia-eredu tradizionala, heteropatriarkala, indartzeko neurriak dira emakumea emazte-ama fin, otzan eta menpeko bihurtzeko helburu bakarrarekin.*

*Emakumeen bizi-baldintzez ari garelarik, ezin ahaztu indarkeria matxista. Indarkeria matxista sistema patriarkalaren adierazpide bat da, adierazpiderik edo ondoriorik larriena. Indarkeria matxistak 5 emakume hil ditu 2014an Euskadin; eta beste 54, Spainiar Estatuan. Indarkeria matxista salbuespeneko gertakizun bat ez den neurrian eta gure egunerokotasunean bizi dugun neurrian, lehen mailako arazoa da guretzat.*

*Aipatutako guztia kontuan hartuta, honako hau adierazi nahi dugu:*

*Eskoriatzako Udaleko hautetsiok, parekotasun osoa helburu izanda, emakume eta gizon askeen mundu baten alde lan egiten jarraitzeko konpromisoa hartu nahi dugu:*

1. Gure herria biolentziarik gabe bizitzeko eremua izateko bitartekoak jarri.
2. Emakume elkartea eta mugimendu feministarekin elkarlana bultzatzu.
3. Gure herriko emakumeek bizitza duina izateko politikak garatuz.
4. Gure desadostasun osoa adierazten dugu abortuari buruzko legedia (martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa, sexu-eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzkoa) aldatzeko, eta 16 eta 17 urteko adingabeek haurdunaldia beraien gurasoen edo legezko tutoreen onespenik gabe etetea galarazteko, parlamentuko talde popularrak egindako lege proposamenarekin.

*Emakumeen elkarrebatzaileek eta mugimendu feministak martxoaren 8rako gure herrian deituriko elkarretaratzearekin bat egiten dugu.*

#### **4.- DEIALDIKO GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.**

Aho batez erabaki da gai zerrendan honako gai hauek sartzea:

**5.- 2015-ERAKO LAN ESKAINTZA PUBLIKOA ONARTZEA.**

**5.- DEBAGOIENA MANKOMUNITATEKO ESTATUTUAK ONARTZEA.**

**6.- ADMINISTRARI PARTEKATU LANPOSTUARI HIZKUNTZ ESKAKIZUNA IZENDATZEA.**

**10.- "GILTZAGUNE" PROIEKTUA EGITEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA.**

**11.- HEMEN GARBIKETAK JAULKITAKO FAKTURA (urtarrilak 16-otsailak 15) ORDINTZEKO AGINDUA.**

**15.- CESPAK JAULKITAKO FAKTURA (urtarrila) ORDAINTZEKO AGINDUA.**

**16.- AXTROKI MERKARTARI ELKARTEAREKIN HITZARMENA SINATZEA AXTROKI IZENEKO TOKIKO MONETA SISTEMA EZARTZEKO.**

**17.- IBARRAUNDI MUSEOAN SALGAI DAUDEN PRODUKTUENTZAKO PREZIO PUBLIKOAK ONARTZEA.**

**5.- 2015-ERAKO LAN ESKAINIZA PUBLIKOA ONARTZEA.**

Deialdi hau giza baliabideak arrazionalizatzeko 2011n onartutako programa baten barruan dago. Bere helburua da Udalbatzarrak, 2011ko apirilaren 27an, hainbat plaza aldatzeko hartutako erabakiak betetzea. Izan ere, plaza horiei dagozkien postuak eskuratzeko baldintzak aldatu egin ziren Lanpostuen Zerrendan, kasuan kasuko eginkizunetara egokitzeko.

Giza baliabideen aprobetxamendua hobetzeko asmoarekin, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programaren eta Lanpostu Zerrendaren bidez, ondorengo lanpostuak aldatu ziren 2011n:

- EGINBEHAR ANITZETAKO ARDURADUNA (C2 azpitaldea) EGINBEHAR ANITZETAKO ARDURADUNA (C1 azpitaldea) izatera pasatu zen.
- 2 PEOI (E taldea) EGINBEHAR ANITZETAKO A LANGILEA ETA EGINBEHAR ANITZETAKO B LANGILEA (C2 azpitaldea) izatera pasatu ziren.
- PEOI-LURPERATZAILEA (E taldea) A PEOI-LURPERATZAILEA (C2 azpitaldea) izatera pasatu zen.
- PEOI-LURPERATZAILE LAGUNTZAILEA (E taldea) B PEOI-LURPERATZAILE LAGUNTZAILEA (C2 azpitaldea) izatera pasatu zen.

Bere garaian, horretarako espedientea izapidetu eta gero, ondorengo lanpostuak bete ziren barne sustapen mugatu bidez.

- EGIN BEHAR ANITZETAKO ARDURADUN LANPOSTU 1, C1 sailkapen taldekoa, administrazio bereziko eskalakoa, zerbitzu bereziakoa, zeregin bereziakoa.
- EGIN BEHAR ANITZETAKO LANGILE LANPOSTU 2. C2 sailkapen taldekoak, administrazio bereziko eskalakoa, zerbitzu bereziakoa, ofizioetako pertsonala.
- PEOI-LURPERATZAILE LANPOSTU 1. C2 sailkapen taldekoak, administrazio bereziko eskalakoa, zerbitzu bereziakoa, ofizioetako pertsonala.

Gaur egun hutsik dago beste PEOI-LURPERATZAILE LANPOSTUA. C2 sailkapen taldekoak, administrazio bereziko eskalakoa, zerbitzu bereziakoa, ofizioetako pertsonala.

**2015/02/24  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario**

Lanpostu hori barne sustapenez bete ahal izateko, Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa**.- 2015erako Lan Eskaintza Publiko onartzea. Eskaintza ERANSKINEAN agertzen da.

**Bigarrena**.- Euskal Funtzio Publikoaren Legeak 24. artikuluan araututakoa kontuan hartuz, Lan Eskaintza Publikoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea eta horren laburpen bat Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

#### I ERANSKINA

##### **Funtzionarioak**

- |   |
|---|
| — LANPOSTUAREN IZENA: B PEOI-LURPERATZAILEA                   |
| - SAILKAPEN TALDEA: C2  |
| - ESKATUTAKO TITULAZIOA: LH II ofizio klasikoetan edo parekoa |
| - HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 1                                     |
| - DERRIGORTASUN DATA: 2012/12/20                              |
| - LANPOSTUA BETETZEKO ERA: Barne sustapena                    |

#### **5.- DEBAGOIENA MANKOMUNITATEKO ESTATUTUAK ONARTZEA.**

Bertaratutako zinegotzi guztiak ezagutzen dute “Debagoineko Mankomunitateko” Gobernu Juntak egindako eta 2015eko urtarrilaren 29an onartutako estatutu proposamena.

Bototara jarrita, honako emaitza izan da: boto 1 aurka (Regidor andrea), abstentzio 1 (Merino jauna) eta aldeko 5 boto. Kontuan izanik aldeko botoek ez dutela legezko gehiengo osoaren quoruma osatzen, ez da onartu estatutu proposamena.

*Merino jaunaren boto azalpena: orain egin behar izanda, gehiengo osoa BILDUk duenean, aurreikusitako egoera da: Mankomunitatearentzat garrantzia duten legeak azken orduan onartzea.*

#### **6.- ADMINISTRARI PARTEKATU LANPOSTUARI HIZKUNTZ ESKAKIZUNA IZENDATZEA.**

Egindako txosten teknikoen eta Alkatetzatik egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa**.- Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 97.5 artikulua eta Euskal Autonomia Elkarteko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997

Dekretuko 23. artikulua betez, ondorengo lanpostuari ondoren adierazten den hizkuntz eskakizuna izendatzea:

LANPOSTUA:	HIZKUNTZ ESKAKIZUNA	DERRIGORTASUN DATA
Administrari partekatua (kultura, euskara, gizarte zerbitzuak eta harrera zerbitza).	3	2015-02-24

**Bigarrena.**- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

#### **7.- GIZADI ELKARTEAK JARRITAKO ABALA ITZULTZEA.**

Eskoriatzako Udalak Etxez Etxeko Lagunza Zerbitzua emateko kontratua betetzetik sortutako bete beharrei erantzuteko bermetzat 2005eko azaroaren 10ean jarritako abala itzultzeko GIZADI ELKARTEAK egindako eskaera ikusi da.

Eskaera aztertuta, zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusita, eta Gizarte Zerbitzuek egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Udalbatzarrari ondorengo erabaki proposamena egitea erabaki da:

**Lehenengo:** KUTXA banketxeak Gizadi Elkartearen alde emandako 3.626,00 euroko abalaren kitapena baimentzea. Abal hori Eskoriatzako Udalak Etxez Etxeko Lagunza Zerbitzua emateko 2005eko kontratua betetzetik sortutako bete beharrei erantzuteko bermetzat jarri zen.

**Bigarrena:** Abalaren originala ematea interesdunari, kitapena bideratu dezan.

#### **8.- ZALDIBAR ANTZOKIA ERABILTZEKO ARAUDIA HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengo.**- Zaldibar antzokia erabiltzeko araudia hasiera batean onartzea.

**Bigarrena.**- Jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, nahi duenak erreklamazioak eta iradokizunak jar diezaion. Erreklamaziorik edo iradokizunik egonez gero, Udalbatzarrak erabaki beharko ditu. Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, araudia behin betiko onartutzat joko da erabaki beririk hartu behar gabe, horrela aurreikusten baitu apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatutako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.c) artikuluak.

## **9.- ZALDIBAR ANTZOKIA ERABILERA ETA EKITALDI PRIBATUETARAKO ERABILTZEKO TASAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Bertaratutako guztiak ezagutzen dute Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamena.

Merino jaunak, behin eta berriz esan ondoren alderdi politikoek hauteskunde kanpainatik kanko interes orokorreko gizarte edota kultur izaerako ekitaldiak antolatzen dituztela, ondorengo aldaketa sartzea proposatzen du:

*Honako hau dioen lekuak: SALBUESPENAK ETA HOBARIAK: Era berean, ez dute tasarik ordaindu beharko ere alderdi politikoek eta hautesle-elkarrekin hauteskunde kanpainarako eskatutako ekitaldiek.*

*Honako hau esatea: SALBUESPENAK ETA HOBARIAK: Era berean, ez dute tasarik ordaindu beharko ere alderdi politikoek eta hautesle-elkarrekin eskatutako ekitaldiek.*

Bertaratutako inork ez dio inolako eragozpenik jarri proposamenari, eta proposatutako aldaketarekin bototara jarri da diktamena.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Zaldibar antzokia erabilera eta ekitaldi pribatuetarako erabiltzeko tasak hasiera batean onartzea.

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, nahi duenak erreklamazioak eta iradokizunak jar diezaion. Erreklamaziorik edo iradokizunik egonez gero, Udalbatzarrak erabaki beharko ditu. Ez balego horrelakorik, behin betiko onartutzat joko da erabaki beririk hartu beharrik gabe.

## **10.- “GILTZAGUNE” PROIEKTUA EGITEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA.**

Gipuzkoako Foru Administrazio Departamentuaren, Osakidetzaren eta Udal honen artean sinatzeko proposatutako lankidetza hitzarmena, honako helburu nagusia duena:

Hitzarmen honen I. eranskinean deskribatzen den sistema jarri eta kudeatzea II. eranskinaren arabera zehaztuko diren edukiontzien bitartez, trafiko mugatuko kaleetan jarritako pibotak edo bestelako oztopoak aktibatzen dituzten giltzak edo agintea bertan gordetzeko, esku hartze azkarra egin ahal izateko.

Alkatetzatik egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Proposatutako hitzarmena sinatzea.

**BIGARRENA.-** Beinat Herce alkate jaunari eskumena ematea aipatutako hitzarmena Udalaren izenean eta ordezkaritzan sinatzeko.

## **11.- HEMEN GARBIKETAK JAULKITAKO FAKTURA (urtarrilak 16-otsailak 15) ORDINTZEKO AGINDUA.**

HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak 2015eko otsailaren 16ean egindako 10 faktura aurkeztu ditu (150025 zenbakitik 150033 zenbakira eta 150035 zenbakiduna), 2015eko urtarrilaren 16tik otsailaren 15era hainbat udal eraikin garbitzeko emandako zerbitzuari buruzkoak.

Otsailaren 16an egindako txostenean, idazkari-kontuhartzaleak legezkotasun eragozpena jarri dio espediente horri, horretarako kontraturik ez dagoelako.

Zerbitzu teknikoek faktura horiek ordaintzearen aldeko txostena egin dute, alegatuz zerbitzua egoki eta merkatuko ohiko prezioetan eman dela.

Kontuan hartuta faktura horiek ordaindu ezean federatzen diren hirugarrenak kaltetuko zirela (kasu honetan, HEMEN GARBIKETAK SLU) eta administrazio honek bidegabeko irabaziak izango lituzkeela, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

- 2015eko urtarrilaren 16tik otsailaren 15era hainbat udal eraikin garbitzeko emandako zerbitzuari buruz 2015eko otsailaren 16ean HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak egindako fakturak (150025 zenbokitik 150033 zenbakira, biak barne, eta 150035 zenbakiduna) ordaintzeko agintza.

#### **12.- LANDUK JAULKITAKO FAKTURA (urtarrila) ORDAINTZEKO AGINDUA.**

LANDU JARDINERIA enpresak 2015eko urtarrilaren 31n egindako faktura aurkeztu du (1-15 zenbakia) Eskoriatzako berdeguneen eta lorategien mantentze zerbitzuari buruzkoak.

Otsailaren 16an egindako txostenean, idazkari-kontuhartzaleak legezkotasun eragozpena jarri dio espediente horri, horretarako kontraturik ez dagoelako.

Hirigintza batzorde informatzaileak faktura hori ordaintzearen aldeko txostena egin du, alegatuz zerbitzua egoki eta merkatuko ohiko prezioetan eman dela.

Kontuan hartuta faktura hori ordaindu ezean federatzen diren hirugarrenak kaltetuko zirela (kasu honetan, LANDU JARDINERIA) eta administrazio honek bidegabeko irabaziak izango lituzkeela, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

- 2015eko urtarrilean Eskoriatzako berdeguneen eta lorategien mantentze zerbitzua emateagatik LANDU JARDINERIA enpresak 2015eko urtarrilaren 31n egindako faktura (1-15 zenbakia) ordaintzeko agintza.

#### **15.- CESPAK JAULKITAKO FAKTURA (urtarrila) ORDAINTZEKO AGINDUA.**

2015/02/24  
Ohiko Osoko Bilkura  
*Pleno ordinario*

CESPA enpresak 2015eko urtarrilaren 31n egindako faktura aurkeztu du (15EK00001 zenbakiduna) 2015eko urtarilean Eskoriatzako kaleak garbitzeko emandako zerbitzuari buruzkoa.

Otsailaren 16an egindako txostenean, idazkari-kontuhartzaleak legezkotasun eragozpena jarri dio espediente horri, horretarako kontraturik ez dagoelako.

Zerbitzu teknikoek faktura horiek ordaintzearen aldeko txostena egin dute, alegatuz zerbitzua egoki eta merkatuko ohiko prezioetan eman dela.

Kontuan hartuta faktura hori ordaindu ezean fede onez ari diren hirugarrenak kaltetuko zirela (kasu honetan, CESPA) eta administrazio honek bidegabeko irabaziak izango lituzkeela, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

- Urtarilean Eskoriatzako kaleak garbitzeko emandako zerbitzuagatik CESPA enpresak 2015eko urtarrilaren 31n egindako faktura (15EK00001) ordaintzeko agintza.

**14.- INTXAURTXUETAKO 35. ESKAPEKO ETXABEAN EGIN BEHARREKO ETXEBIZITZARI UDAL ETXEBIZITZA TASATU BEHIN-BEHINEKO SAILKAPENA EMATEA, ETA ETXEBIZITZA HORI ESLEITZEKO OINARRIAK ONARTZEA.**

JOSE SERAFIN FERRERIRA GONÇALVEZ jaunak lizentzia eskatu du etxebizitza bezala egokitzenko Eskoriatzako II-2 sektoreko "H" lurzatiko H2 etxebizitza blokean dagoen merkataritzalokal bat (Intxaurtxueta 35, beheko solairua esk).

Etxebizitza osoko jabetzan edo erosketa-aukerarekin alokairuan emateko asmoa du.

Udal zerbitzu teknikoek eta juridikoek aldeko txostena egin dute indarrean dagoen "Hiri lurreko bizitegietako eraikinetako lokalak etxebizitzak bilakatzeko udal ordenantzan" ezarritako eremuari dagokionez zein ezarritako baldintzak betetzeari dagokionez.

Bestalde, etxebizitza horiek esleitzeko prozesua arautzeko erabiliko diren OINARRIAK egin dira.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** JOSE SERAFIN FERRERIRA GONÇALVEZ jaunak sustatutako etxebizitzari ERREGIMEN BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATU BEHIN-BEHINEKO KALIFIKAZIOA ematea eranskinean adierazten diren xehetasunekin. Etxebizitza hori Eskoriatzako II-2 sektoreko

"H" lurzatiko H2 etxebizitza blokeetako merkataritza-lokalean egingo da (Intxaurtxueta 35, beheko solairua esk.), eta Udalak emandako obra lizentzian ezarritako baldintzen arabera egokitu beharko da.

**Bigarrena.-** Behin-behineko kalifikazioa tramitezko administrazio egintzatzat joko da ondorio guztielarako.

#### **ERANSKINA**

##### **SUSTAPENAREN EZAGUARRIAK:**

SUSTATZAILEA: JOSÉ SERAFIN FERREIRA GONÇALVES

KOKAPENA: Intxaurtxueta 35, beheko solairua, esk..

ETXEBIZITZA MOTA: Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatua.

SUSTAPEN MOTA: lokal bat etxebizitzarako egokitzea.

##### **SUSTAPENEKO ELEMENTUAK**

Etxebizitza kopurua: 1

Horri atxikitako garaje kopurua: 0

Atxikitako trasteleku kopurua: 0

Atxiki gabeko garaje kopurua: 0

Zozketaz esleitzeko etxebizitza kopurua: 1

Zozketaz esleitzeko minusbaliatuentzako egokitutako etxebizitza kopurua: 0

##### **BAIMENDUTAKO LAGAPEN FORMULA**

Osoko jabetza edo erosketa-aukerarekin alokairua.

##### **OSOKO JABETZAN EMANEZ GERRO BAIMENDUTAKO GEHIENEZKO SALMENTA PREZIOAK (BEZ GABE).**

Intxaurtxueta 35, beheko solairua, eskuinean dagoen lokaleko etxebizitza. Azalera erabilgarria: 61,16 m<sup>2</sup>: 120.082,00 euro (BEZ gabe).

##### **EROSKETA-AUKERAREKIN ALOKAIRUAN EMANDA**

Urteko errenta ezingo da izan baimendutako gehienezko salmenta prezioaren % 5a baino handiagoa.

Kontraprestazioa, iraupena eta salmentarentzat egin beharreko kenketak: Babes ofizialeko etxebizitzak erosketa- aukerarekin alokatzeari buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko abenduaren 12ko Aginduan ezarritako jarraituko da (251. EHAA, 2012ko abenduaren 28koa).

##### **ERREGIMENAREN IRAUPEN EPEA**

Iraunkorra.

**Hirugarrena.-** Aipatutako etxebizitza esleitzeko oinarriak onartzea.

**Laugarrena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Bosgarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Seigarrena.-** OINARRI horiek onartu ondoren, bertan araututako prozedura gauzatu ahal izateko beharrezko erabakiak hartzeko ahalmena ematea Alkate jaunari.

**15.- HIRI LURREKO BIZITEGIETAKO ERAIKINETAKO LOKALAK ETXEBIZITZAK BILAKATZEKO UDAL ORDENANTZAKO 12., 13. ETA 16. ARTIKULUEN ALDAKETA HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

A- Santa Marinako etxe tasatuak esleitzeko zeuden zaitasunak ikusita, udal etxebizitza tasatuak arautzeko udal ordenantzako 9. eta 16. artikuluen aldaketa onartu zen 2011ko urriaren 19an.

Espediente honetan aldatu zen alderdietako bat erroldarena izan zen, malguagoa eginez, eta horrela, oinarriak onartzeraoan, eta une horretan dagoen eskaeraren arabera, horri buruz hartu beharreko erabakia Udalbatzarraren esku gelditzen zen.

B- Ondoren, 2013ko urriaren 29an, hainbat artikuluren (2, 5, 6, 8, 9, 10 eta 11) aldatzea onartu zen “erosketa-aukerako alokairu” modalitatea sartu ahal izateko.

Espediente horretan etxebizitzaren beharra justifikatzeari buruzko baldintzak aldatu ziren.

Orain, HIRI LURREKO BIZITEGIETAKO ERAIKINETAKO LOKALAK ETXEBIZITZAK BILAKATZEKO UDAL ORDENANTZA aldatzea proposatzen da, aipatutako beste ordenantzan sartuta dagoen “erosketa-aukerako alokairu” modalitatea honetan ere sartzeko eta ordenantza bietan baldintza berak izateko etxebizitza baten onuradun izateko.

Hirigintzako Batzorde Informatiboak egindako proposamenarekin bat etorriz, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-**

Hiri lurreko bizitegietako eraikinetako lokalak etxebizitzak bilakatzeko udal ordenantzako 12. artikulua honela aldatzea.

***12. artikulua. Etxebizitza eskuratzeko baldintzak.***

a) Etxebizitzaren onuradun izateko (onuraduntzat, *bizikidetza unitateko kide guztiak hartuta*) gutxinez batek adinez nagusia izan behar du. *Bizikidetza unitatetzetaz ez da hartuko adiskidetasun edo komenientziak eragindakoa, eta etxebizitzaren jabeakide izan behar dute adinez nagusi diren bizikidetza unitateko kide guztiak, seme-alabak izan ezik.*

b) *Udal Etxebizitza Tasatuko onuradun guztiak (onuraduntzat, *bizikidetza unitateko kide guztiak hartuta*) bete beharko dute aurreko bi urteetan estatuan beste etxebizitzarik ez izatearen baldintza, eta ezingo dute etxebizitzarik izan ez jabetzan (jabetza osoa edo lurrazalekoa), ez bizi arteko gozamen eskubide errealauren bidez; hori guztiori ondoren esango diren salbuespenekin edo etxebizitza-premia definitzen duen erkidegoko araudian ezarritakoren artetik, eta aurrez justifikatutako eskaera eginda, Udalbatzarrak aintzat har ditzakeenekin.*

*Etxebizitza-premia izateko baldintzatik salbuetsita egongo dira ordenantza honetan edo hori garatzeko araudian xedatutako gainerako baldintzak betetzen dituztenak, baldin eta jabetzan, jabetza soilean, azalera-eskubidean edo*

*gozamenean etxebizitza baten titularrak badira edo aurreko bi urteetan hala izan badira, eta etxebizitza hori haien ohiko bizeleku iraunkorra bada edo izan bada; betiere, hauetako egoera batean badaude:*

a) Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko azaroaren 30eko 317/2002 Dekretuan, edo ordezkatzen duen araudian, ezarritako gutxieneko bizigarritasun-baldintzak ez betetzea, eta martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren, babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruan inguruko finantza-neurriei buruzkoaren, 17.3 artikuluan ezarritako datak baino bost urte lehenago gutxienez eskuratua izatea.

*Arlo horretan eskumena duen teknikari baten txostenaren arabera eraikuntza-konponbideak onartzen ez dituzten hutsuneak bakarrik hartuko dira kontuan. Nolanahi ere, udal zerbitzu teknikoek aurkako txostenak eman ahalko dituzte, eta lotesleak izango dira horiek.*

b) Banantzeko edo dibortziatzeko edota izatezko bikoteak amaitzeko prozesu baten ostean, judizialki beste ezkontidearen familia-helbide gisa esleitua izatea. Tratu bera izango dute izatezko bikoteen amaiera kasuek.

c) Gerora sortutako ordaintzeko ezintasunaren ondorioz, hipoteka-betearazpena jaso ondoren hirugarren maila arteko odolkidetasunez edo kidetasunez ahaiderik ez diren pertsona bat epaiaketa bidez edo notario bidez esleitua izatea.

d) Indarreko araudian xedatutako irisgarritasun-baldintzak ez betetzea, titularrak 70 urtekoak edo gehiagokoak direnean.

e) Bere azalera erabilgarria pertsona bakoitzeko 15 metro kuartalo baino txikiagoa izatea.

f) Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzekoan, jasotako sarbideei eta igogailuei buruzko xedapenak betetzen ez dituen eraikin batekoia izatea, betiere haren kideetako bat mugikortasun mugatu iraunkorra duen desgaitua bada.

g) Etxebizitzak ez diituenean betetzen Udal araudietako gutxieneko etxebizitza programan jasota dauden baldintzak.

*Etxebizitza-premia izateko baldintzatik salbuetsita egongo dira ere ordenantza honetan edo hori garatzen duen araudian aurreikusitako gainerako baldintzak beteta, jaraunspen edo dohaintzaren bitartez titularkidetasunean eskuratutako etxebizitza bat edo batzuk dituztenak, betiere, honako baldintza hauetak betetzen badira:*

1- Ezein titularkidetasun-ehuneko ezin izango da % 50etik gorakoia izan.

2- Etxebizitza-partaidetzen balioa edo partaidetzak eskualdatzetik lortutako zenbatekoa ezin izango da 75.000 euro baino handiagoa izan, betiere hipoteka-kargaren ordaintzeke dagoen zenbatekoa kenduta.

c) ERROLDA: gainera, udal etxebizitza tasatuaren onuraduna izan ahal izateko, bizikidetza unitateko kideetako batek, - gutxienez, honako baldintza hauetako bat bete behar du:

a) Ohiko bizitokia Eskoriatzan izatea eta bertan erroldatuta egotea deialdia arautzen duten oinarrietan zehaztutako modu, epe eta baldintzeten esleipen prozedura zozketaz denean edo Udalbatzarraren erabakiz prozedura bestelakoa denean.

b) Eskaintza eskaera baino handiagoa denean, eta handienetik txikienerako lehentasunarekin:

- Debagoineneko gainontzeko udaletan biziak eta erroldatuta egotea.

- Euskal Autonomia Erkidegoko gainontzeko udaletan biziak eta erroldatuta egotea.

d) DIRU SARRERAK:

- Bizikidetza-unitatearen urteko gehienezko diru sarrera haztatuak, babes ofizialeko etxebizitzen euskal autonomia erkidegoko araudian ezarritakoaren arabera kalkulatuta, ezingo dira izan 1,3 indizea baino handiagoak erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko indarrean dauden gehieneko diru sarrerekiko.

- Haztatutako gutxieneko diru sarrerak ezingo dira izan 12.000 € baino txikiagoak.

e) Etxebide, Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuko eskatzaileen erroregistroan izena emanda egotea.

**Bigarrena.-**

Hiri lurreko bizitegietako eraikinetako lokalak etxebizitzak bilakatzeko udal ordenantzako 13. artikulua honela aldatzea.

**13. artikulua. Gehienezko prezioak eta errentak.**

1.- Gehienezko salmenta prezioa, babes ofizialeko etxebizitza tasatuei autonomia erkidegoan aplikagarri zaien arauek ezarriko dute. Nolanahi ere, ezingo dute gainditu 1,45 indizea, udal kalifikazioa eskuratzen den unean, indarrean den erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzen gehienezko prezioari dagokionez.

2.- Alokairuaz den bezainbatean, urteko errenta, etxebizitza horien gehienezko salmenta prezioaren % 2,5 izango da gehienez.

3.- Erosketa-aukerarekin alokairuaz den bezainbatean, urteko errenta, etxebizitza horien gehienezko salmenta prezioaren % 5 izango da gehienez.

**Hirugarrena.-**

Hiri lurreko bizitegietako eraikinetako lokalak etxebizitzak bilakatzeko udal ordenantzako 16. artikulua honela aldatzea:

**16. artikulua. Udal etxebizitza tasatuaren kalifikazioaren ondorioak**

Etxebizitzak etxebizitza babestu kalifikazio iraunkorra izango du. Ondorioz, betiko lotuta egongo dira ordenantza honetan ezarritako gehienezko transmisió prezioari bai lehenengo Eskoriatzako Udalak eta, edozein modutan, subsidiarioki Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak lehentasunez erosteko eskubidea eta atzera eskuratzeko izateari.

Bizien artean bigarrenez edo aldi gehiagotan eskualdatutako gehienezko prezioa hau izango da: kalifikazioan jartzen den indizearen araberakoa. Kontuan hartzen da, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzentzat indarrean dagoen gehienezko prezioa (transmisió egiten denean indarrean dagoena).

Etxebizitzak erosketa-aukerako alokairuan emandakoan, ordenantza honetan edo Udal Etxebizitza Tasatuak arautzeko udal ordenantzan ezarri gabeetarako babes ofizialeko etxebizitzak erosketa-aukerarekin alokatzeari buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko abenduaren 12ko Aginduan ezarritakoa jarraituko da.

Aurreko paragrafoetan esaten dena esan arren, ondasun higiezinean egin diren hobekuntzek eta mantentze lanek (halakorik egin bada), handitu egingo dute besterentz prezia, baldin udal Administrazioak ondorio horietarako aurrez onartu baditu –kreditatutako beharra delako eta ez kapritxo hutsa–, haien balioztapena eta balio galera zehaztuta.

**Laugarrena.-**

Erabakia jendaurrean jartzea 30 egunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

**Bosgarrena.-**

Aldaketa erabakia behin betikoa izango da, erabaki berrik Hartu behar gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igarota inolako erreklamaziorik egingo ez balitz.

**16.- AXTROKI MERKARTARI ELKARTEAREKIN HITZARMENA SINATZEA AXTROKI IZENEKO TOKIKO MONETA SISTEMA EZARTZEKO.**

Eskoriatzako Udalak interesa du toki garapena sustatzeko, eta sustapen hori osotasunetik egin nahi du, garapen horrek ekonomia, gizartea eta ingurumena bildu behar dituela ulertuta.

Helburu horrekin, Udalbatzarrak, 2013ko abenduaren 17an egindako osoko bilkuran, toki garapena sustatzeko diru laguntzak arautzeo oinariak onartu zituen. Diru laguntza horiekin garapen soziala eta jasangarria sustatu gura dira Eskoriatzan.

Baina, tokiko ekonomia indartzeak, alde batetik, oinari horietan aurreikusitako neurriek elkar eragitea eskatzen du, eta bestetik, eragin zuzenena tokiko kontsumoa suspertzean izatea. Horretarako, Udalak zuzenean parte hartu nahi du tokiko moneta sistema baten ezarpenean. Hori dela-eta, oinarietan bertan aurreikusi da diru laguntzak AXTROKI monetarekin ordaintza, herriko dendetan bakarrik aldatu ahal izango diren monetetan.

Udalbatzar honek, *AXTROKI izeneko tokiko moneta ezartzeko asmoz, AXTROKI Eskoriatzako Merkatari Elkartearekin lankidetza hitzarmena sinatzea erabaki zuen 2014ko apirilaren 10ean . Hitzarmen horren indarraldia 2014ko abenduaren 31n amaitu zen.*

*Udal honek AXTROKI moneta erabiltzen jarraitu nahi duenez sariak eta toki garapena sustatzeko deialdieta diru laguntzak ordaintzeko, beharrezkoa da 2014an sinatutako hitzarmen berdina edo antzerakoa sinatzea Axtroki Merkatari Elkartearekin.*

*Esandako guztian oinarrituz, eta Garapen Jasangarria batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, Regidor andrea abstentuta eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:*

**Lehenengoa.-** Lankidetza hitzarmena sinatzea AXTROKI merkatari elkartearekin AXTROKI izeneko tokiko monetaren erabilerarekin jarraitzeko. Hitzarmenaren baldintzak honen eranskin gisa doaz.

**Bigarrena.-** Alkate jaunari eskumena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko Udalaren izenean eta ordezkaritzan.

## **ERANSKINA**

## **BALDINTZAK**

**Lehena.** Hitzarmen honek AXTROKI izeneko tokiko moneta ezartzeko Eskoriatzako Udalaren eta AXTROKI Merkatari Elkartearen arteko lankidetza bideak jartzen ditu.

**BIGARRENA:** AXTROKI Merkatari Elkartearen funtzioa honako hau izango da:

- \* Eskoriatzako merkatariei elkarteko kide egiteko, programan parte hartzeko eta beraien produktuak Udalak jaulkiko duen Axtroki izeneko herri monetan ordaintza onartzeko eskatzea.
- \* Udalak tokiko monetan emango dituen laguntzak beraien produktuengatik eta zerbitzuengatik trukatzeko baldintzei eta moduari buruz egingo den informazio kanpainan laguntzea.

- \* Eskoriatzako herriko merkataritzan kontsumoa suspertzeko ekintzak egitea toki garapen integralaren printzipioetan oinarrituta, hau da, garapen sozialean, ekonomikoan eta ingurumenean.
- \* Parte hartze zuzena izatea tokiko moneta sistema ezartzerakoan.
- \* Merkatari elkartearren AXTROKI moneta lokal propria zuzenean jaulkitzea, elkartearren logotipoa bertan jarrita.
- \* Elkarteak jaulkitako moneten balorearen gordailu baliokidea bermatzea eurotan.

**Hirugarrena. AXTROKI Merkatari Elkarteak hartzen dituen konpromisoak.**

AXTROKI Merkatari Elkarteak, bertako kide diren establezimendu guztien izenean, honako konpromiso hauek hartzen ditu:

*Elkarteari atxikitako denda eta establezimendu guztietai Udalak jaulkitako AXTROKI moneta lokalarekin produktuak zein zerbitzuak erostea onartzaia.*

Merkatariek beraien prestazioa ordaindutzat emango dute horien prezioaren baliokidea AXTROKINETAN ordainduta.

**Laugarrena. Eskoriatzako Udalak hartzen dituen konpromisoak.**

Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- AXTROKI moneta lokalaren erabilera sustatzea.
- AXTROKI izeneko tokiko moneta zuzenean jaulkitzea eta bere erabilera herrian sustatzea axtrokietan ordainduz 2015ean emango dituen sarietako batzuen onuradunei eta tokiko garapena sustatzeko diru laguntzak arautzeko oinarrietan jasotako diru laguntzen onuradunei (Udalbatzarrak onartutakoak 2013ko abenduaren 17an, eta GAOko 3. zenbakian argitaratuta 2014ko urtarrilaren 7an).
- AXTROKI tokiko monetak euroengatik aldatzea erakunde laguntzaileari atxikitako herriko merkatariek Udalak berak jaulkitako axtrokiak Udalera eramandakoan. Baliokidetza euro 1 AXTROKI 1 izango da.

**Bosgarrena: Udalak jaulkitako AXTROKIAK aldatzeko prozedura.**

- Aldaketa edo trukea horrela egingo da:

1. Erakunde laguntzaileari atxikitako merkatariek ondasunak edo zerbitzuak trukatzeagatik jasotako AXTROKIAK (Udalak jaulkitakoak) udal diruzaintzan entregatu beharko dituzte.

2015/02/24  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario

Axtrokiak hileko lehen 5 lanegunetan entregatu beharko dira, 10:00etatik 14:30etara (larunbatetan izan ezik).

2. Udalak, behin moneta faltsua ez dela egiaztatu eta monetaren zenbakia urte horretan deitutako prozesuetan emandakoa dela ikusi ondoren, beraiek ekarritakoaren baliokidea eurotan emango dio merkatari bakoitzari hileko hirugarren astearte baliodunean.
3. Aldaketa egiteko azken hilabete balioduna hurrengo urteko urtarrila izango da. Hilabete horretan hilaren 10etik 15era arteko lanegunetan egin ahal izango da aldaketa. Egun horiek Axtrokiak aldatzera Udalera etorri gabe igaroz gero, horien baliokideak eurotan jasotzeko eskubide guztia galduko du merkatariak. Hau da, jaulkitako monetak iraungitze data izango dute, bakar bakarrik hurrengo urtarrilaren 10a baino lehen egindako salerosketetarako balioko dute.

**Seigarrena.** Ez da kontraprestazio ekonomikorik finkatzen ERAKUNDE LAGUNTZAILEARENTZAKO, eta ez da ezartzen ere dagokion bermea aurkeztu beharra.

#### **Zazpigarrena.- JARRAIPEN BATZORDEA**

Alde biek beharrezko ikusten dute hitzarmen honen jarraipen batzorde bat eratzea. Batzordea alde bietako hiru ordezkarik osatuko dute, eta bere eginkizun nagusia hitzartutako aurreikuspenak eta konpromisoak betetzen direla ikustea izango da, eta orokorean, etorkizunean sortu daitezkeen gorabehera guztiei erantzutea.

Eskoriatzako Udalaren ordezkarriak batzordean honako hauek izango dira:

- Ekonomia eta enplegu arloko zinegotzi arduraduna.
- Ekonomia eta enplegu arlora atxikitako museoko teknikaria.
- Kontabilitate arloko teknikaria.

AXTROKI Merkatari Elkarteko ordezkarriak batzordean honako hauek izango dira:

- Lehendakaria.
- Idazkaria.
- Diruzaina.

Hitzarmen honen interpretazio eta exekuzioari buruz egon daitezkeen eztabaidak alde biak,

Jarraipen Batzordearen bidez, ados jarrita konpondu beharko dira.

Ezingo balitz adostasun horretara iritsi, egon daitezkeen eztabaidak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritako moduan konpondu beharko dira.

**Zortzigarrena.** Hitzarmen hau bakar bakarrik lehenengo baldintzak zehaztutako helburua betetzera mugatzen da, eta sinatzen den egunetik 2015eko abenduaren 31ra arte izango du indarra.

**Bederatzigarrena.** Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzio-ordenean inpugnatu ahal izango da.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoaren Kontratuai buruzko Legearen Testu Bategineko 4.1.d) artikuluan ezarritakoaren arabera, hitzarmen hau bere aplikazio eremutik kanpo gelditzen da, hala ere, hitzarmena betetzerakoan sor daitezkeen zalantzak edo arazoak interpretatu, aldatu edo konpontzeko arau subsidiarioa izango da.

#### **17.- IBARRAUNDI MUSEOAN SALGAI DAUDEN PRODUKTUENTZAKO PREZIO PUBLIKOAK ONARTZEA.**

Garapen Jasangarria batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Ondorengo prezio publikoak onartzea Eskoriatzako IBARRAUNDI museoko dendar salgai dauden produktuentzat.

##### **AXTROKIKO ONTZIEKIN EGINDAKO BITXIAK**

Giltzarrapoak:	70,00 €
Zintzilikarioak:	
Handiak	40,00 €
Ertainak	23,00 €
Txikiak	15,00 €
Belarritakoak:	
Bi ontzi	60,00 €
Ontzi bat, ertaina	35,00 €
Ontzi bat, txikia	30,00 €
Makilan ontzi handia	40,00 €
Makilan ontzi txikia	35,00 €
Malkoak	32,50 €
Torlojurduna, txikia	22,50 €
Torlojurduna, handia	30,00 €

## EUSKAL IKURREKIN EGINDAKO BITXIAK

Zintzilikarioak:

Handiak _____	19,00 €
Txikiak _____	15,00 €
Eguzkilore txikia _____	25,00 €
Eguzkilore handia _____	30,00 €

Belarritakoak:

Txikiak _____	24,00 €
Handiak _____	30,00 €

Kautxoak \_\_\_\_\_ 4,00 €

**Bigarrena.-** Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

### **18.- LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ESKORIATZAKO KIROL ELKARTEAREKIN: DIRU LAGUNTZA EMATEA ETA UDAL INSTALAZIOAK LAGATZEA.**

Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzako Kirol Elkarteari 21.500 euroko diru laguntza ematea Elkartea 2015ean antolatuko dituen jarduerak finantzatzen laguntzeko, eta gastu hori onartzea indarrean dagoen aurrekontuko 0406.481.452.70.01 partidaren kargura. Erakunde onuradunarekin sinatu beharreko hitzarmenean ezarritako erregimenari lotuta egongo da diru laguntza. Hitzarmeneko baldintzak erabaki honen eranskinean jasotzen dira. Ordainketarako ezarritako zati bakoitza zerbitzu teknikoek aldeko txostenetan egin ondoren ordainduko da.

**Bigarrena.-** Eskoriatzako Kirol Elkarteari prekarioan lagatzea Intxaurtxueta kaleko 9. zenbakiko etxabea. Lagapena erakunde lagatzailearekin sinatu beharreko hitzarmenean ezarritako erregimenari lotuta gelditzen da.

**Hirugarrena.-** ESKORIATZA KIROL ELKARTEAREKIN sinatu beharreko lankidetza hitzarmena onartzea. Hitzarmen horretan jaso eta arautzen dira alde bakoitzak hartzen dituen betebeharrak Elkardea Eskoriatzan egiten ari den lana bultzatzeko, eta emandako diru laguntza eta udal lokalaren lagapena zer nolako baldintzen menpe gelditzen diren.

Hitzarmen horretan honekin batera doan eranskinean agertzen diren baldintzak jaso beharko dira.

**Laugarrena.-** ESKORIATZAKO KIROL ELKARTEAK bere bazkideek 2015eko irailaren 31ra arte udal kirol instalazioak erabiltzeagatik ordaindu behar duen tasaren kitapena onartzea,

guztira, 1.380 euro. Urteko gainerako zatiari dagokion tasaren kitapena eta ordainketa hitzarmenean ezarrita dagoen bezala egingo da.

**Bosgarrena.-** Ahalmena ematea Alkate jaunari aipatutako hitzarmena sinatzeko Udalaren izenean eta ordezkaritzan, eta hitzarmen hori betetzeko bidezko diren behar beste erabaki hartzeko.

**19.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEKO 9. ERANSKINA “KIROL INSTALAZIOAK ETA KIROL ZERBITZUAK ERABILTZEA” ALDATZEARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA.**

Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatiko tasak arautzen dituen ordenantzako 9. eranskina “Kirol instalazioak eta kirol zerbitzuak erabiltzeagatiko tasa” aldatzeko Kultura batzorde informatzaileak, kirol azpibatzordeak eskatuta, egindako proposamena ikusirik, Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzordekide guztiekin alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Proposatutako aldaketa onartzea, akta honen 2. eranskin gisa agertzen dena.

**Bigarrena.-** Erabakia jendaurrean jartzea 30 egunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Aldaketa erabakia behin betikoa izango da, erabaki berririk hartu behar gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igarota inolako erreklamaziorik egingo ez balitz.

**21.- ESKORIATZAKO UDAL TALDE SOZIALISTAK HONDAKINEN TRATAMENDUARI BURUZ AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Cantero jaunak, udal talde sozialisteko bozeramaleak, mozioa kendu du bilkuraren bertan.

**22.- GALDERAK ETA ESKARIAK.**

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 19:30ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**

## **1 ERANSKINA**

### **LEHENA.- HITZARMENAREN HELBURUA.**

Honako Lankidetza-hitzarmen honen xedea da urteetan Eskoriatza Kirol Elkarteak Eskoriatzako herrian eta Leintz bailaran egiten duen lana bultzatzea Horretarako, hitzarmen honen bidez honako hauek bideratuko dira ESKORIATZA KIROL ELKARTEAREN alde:

- a) Udal honetan indarrean dagoen aurrekontuko 4. kapituluan "transferentzia arruntak" bezala izendatutako kredituan agertzen den diru laguntha.
- b) Udal lokal bat prekarioan lagatzea.
- c) Udal kirol instalazioak erabili ahal izatea Eskoriatza Kirol Elkarteko bazkideek.

### **BIGARRENA.- ITZARMENAREN INDARRALDIA.**

Lankidetza hitzarmen honek sinatzen den egunetik izango du eragina, eta 2015eko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

Dena den, sinatzaileek hitzarmena bertan behera uzteko aukera izango dute beste aldeari idatziko salaketa aurkeztuta. Hitzarmenean jasotako erabakiak ez betetzeagatik egingo da salaketa.

### **HIRUGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA.**

Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren Jarraipen batzordea eratzea, alde bakoitzeko kide batek osatuko duena. Aurreikusitakoa eta hartutako konpromisoak betetzen direla zainduko du batzordeak eta orokorean etorkizunean gertatu litezkeen auziaz arduratuko da.

Batzorde horretako kide izango dira:

- \* Udalaren aldetik: Kirol aholkularia eta kiroletako zinegotzia edo horren ordezkaria.
- \* Eskoriatza Kirol Elkartearen aldetik: Javier Corbal jauna

### **LAUGARRENA.- ZERGA BETEBEHARRAK ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKOAK BETE DIRELA EGIAZTATZEA.**

Eskoriatzako Kirol Elkarteak egunean izan beharko ditu zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak hitzarmena sinatu baino lehen eta hitzarmenaren indarraldiak dirauen bitartean. Horretarako, hitzarmen hau sinatzearekin, dagozkion ziurtagiriak telematikoki lortzeko baimena ematen dio berariaz Eskoriatzako Udalerri.

### **BOSGARRENA.- DIRU LAGUNTZEN ERREGISTRO PUBLIKOAN SARTZEA ETA EMANDAKO DIRU LAGUNTZA ARGITARATZEA.**

1. Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege orokorreko 20.1 artikuluan ezarritakoa eta lege hori garaizko gainerako araudia betez, emandako diru laguntzari buruzko datuak eta ERAKUNDE ONU-

RADUNAREN identifikazioa Estatuko Kontu-hartze Orokorrera bidaliko diru diru laguntzen datu base nazionalean gorde daitezten, agindu horretan aurreikusitako helburuarekin bakar-bakarrik, eta datu pertsonalen babesari dagokion begirunearekin, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organoikoan aurreikusitakoaren arabera.

2. Diru laguntzei buruzko 38/2003 Legeko 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ERAKUNDE ONURADUNARI emandako diru laguntza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

#### **SEIGARRENA.- IZAERA, INTERPRETAZIOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.**

- a) Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta bertako baldintzen interpretazioan sor daitezkeen zalantzak erabakitzeko honako hauetako xedapenak aplikatuko dira:
  1. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
  2. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
  3. Toki Araubidearen gainean indarrean dauden xedapenen Testu Bategina, apirilaren 8ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz onartua.
  4. Toki erakundeen ondasunei buruzko araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.
  5. Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea.
  6. Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzaldiko Errege Dekretua.
- b) Hitzarmen hau aplikatzerakoan sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak argitza Eskoriatzako Udalbatzarrari dagokio.
- c) Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako eskumen banaketaren arabera, administrazioarekiko auzi jurisdikzioko organoei dagokie hitzarmen honen ondorioz sor daitezkeen auziez arduratzea.

#### **KLAUSULA ZEHATZAK**

#### **ZAZPIGARRENA.- DIRU LAGUNTZAREN HELBURUA ETA ZENBATEKOA.**

Eskoriatzako Udalak, 2015ekdo aurrekontuaren kargura, 21.500 euroko diru laguntza emateko dio Eskoriatza Kirol Elkarteari taldeko ohiko jarduerak egiten laguntzako, Udalaren oniritzia au-rez jasotzen duten ez ohiko jardueretarako, eta administrazio gastu orokorretarako.

Emandako diru laguntza honako hauetarako erabiliko da:

- 16.500 € taldeko ohiko jarduerak egiten laguntzeko, eta horietako 2.000 € euskara normalizazioari buruz Eskoriatzako Udalak ezarritako irizpideak betetzearen menpe egongo dira.
- 2.500 € Gabez Takarraran eta Silvestradie lasterketak antolatzeko.
- 2.500 BTT martxa antolatzeko.

EKEk diru-lagunza emandako helbururako erabiliko ez balu, eta diru lagunza emateko arrazoia izan zen jarduera egingo ez balitz, horri dagokion kopuru berean murriztuko zaio emandako diru lagunza, eta itzuli egin beharko du emandako diru lagunza eta gainetik jasotakoa.

#### **ZORTZIGARRENA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.**

Diruz lagungarritzat joko dira indarrean dagoen araudiaren arabera zuzen justifikatuta egonda, beharrezkoak direnak eta diruz lagundutako proiektu eta jardueren izaerari eta garapen normalari erantzuten diotenak inolako zalantzarik gabe.

Beste batzuen kaltetan gabe, diruz lagungarri honako hauek joko dira:

- Federazio-gastuak, epaileak, dietak, arropa eta kirol-ekipamendua, aseguruak, ordezkaritza-gastuak, protokolo-gastuak eta hirugarren ez-profesionalentzako konpentsazio ekonomikoak.
- Gabez Takarraran eta Silbestrada kirol ekitaldiei zuzenean lotutako gastuak.
- BTT martxari zuzenean lotutako gastuak.

#### **BEDERATZIGARRENA.- BATERAGARRITASUNA HELBURU BERA DUTEN BESTE DIRU LAGUNTZA, LAGUNTZA, DIRU SARRERA EDO BALIABIDEEKIN.**

Emandako diru lagunza bateragarria izango da erakunde publikoek edota pribatuak helburu bererako emandako beste edozein laguntzarekin, baina, inolaz ere ezingo da gain-finantzaketarik izan, eta horrelakorik balego, emandako eta ordaindutako diru lagunza murriztuko da diru lagundutako jardueraren defizit mugara arte.

#### **HAMARGARRENA.- DIRU LAGUNTZA ORDAINTZEKO EPEAK.**

1. Ez da eskatuko pertsona onuradunak bermerik jartzerik, ez baita ikusten hitzarmen honen arabera hartutako obligazioak beteko ez dituen arriskurik.
2. Ohiko jardueretarako emandako diru lagunza (16.500 €) ondorengo epeetan ordainduko da:
  1. 14.500 €-ko %60 ekitaldiaren aurrekontua onartu eta hurrengo hilabetearen barruan, hitzarmen hau sinatu eta 11. baldintzan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.
  2. 14.500 €-ren gainerako % 40a 2015eko abenduaren lehen hamabostaldian ordainduko da, 11. baldintzan aipatutako dokumentuak aurkeztu ondoren.
  3. Euskararen normalizazioari buruzko irizpideak betetzeari lotutako dirua (2.000 €)

Uztailean diru laguntzaren %50a zurituko da. Horretarako honako neurketak egingo dira:

1. Entrenatzaileen hizkuntza-erabilera: Talde guztien artean gutxienez %60koa izan beharko da euskararen erabilera.
2. Formazio saioen parte-hartzea: Udala eta elkartearren artean diseinatutako formazio saioetako asistentzia gutxienez %80koa izan beharko da.

3. Aurreko bi puntueta zehaztutako kopuruak betetzen badira, diru laguntzaren %50a ordainduko da. Bestela, diru laguntza proporcionalki jaitsiko da.

Abenduan diru laguntzaren %50a zurituko da. Horretarako honako neurketak egingo dira:

1. Entrenatzaileen hizkuntza-ezagutza: Entrenatzaileen %60a gutxienez euskalduna izan beharko da.
2. Entrenatzaileen hizkuntza-erabilera: Talde guztien artean gutxienez %60koa izan beharko da euskararen erabilera.
3. Aurreko hiru puntueta zehaztutako kopuruak betetzen badira, diru laguntzaren %50a ordainduko da. Bestela, diru laguntza proporcionalki jaitsiko da.

3. Gabez Takarraran eta Silvestradiari emandako diru laguntza: 2.500 €

- Gabaz Takarraran eta Silvestradie lasterketak antolatzeko 2.500 €-ren %60a ekitaldiaren aurrekontua onartu eta hurrengo hilabetearen barruan, hitzarmen hau sinatu eta 11. baldintzan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.
- Gabaz Takarraran eta Silvestradie lasterketak antolatzeko 2.500 €-ren gainerako %40a 2016ko urtarrilaren bigarren astean ordainduko da, 11. baldintzak aipatutako dokumentuak aurkeztu ondoren.

4. BTT martxa: 2.500 €

1. BTT martxa antolatzeko 2.500 €-ren %60a ekitaldiaren aurrekontua onartu eta hurrengo hilabetearen barruan, hitzarmen hau sinatu eta 11. baldintzan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.
2. BTT martxa antolatzeko 2.500 €-ren gainerako %40a 2016ko proba amaitu eta hilabetera ordainduko da, 11. baldintzak aipatutako dokumentuak aurkeztu ondoren.

#### **HAMAIKAGARRENA.- EMANDAKO DIRU LAGUNTZAK ZURITZEKO EPEAK ETA ERA.**

- Dagokion zuriketa aurkeztekoko 30 eguneko epea izango da diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik kontatzen hasita, eta edozein modutan, 2015eko abenduaren 15a baino lehen egin beharko da.
- Aurkeztu beharreko dokumentazioari eta diru laguntza zuritzeko modua:

Emandako diru laguntza bakoitzaren lehen zatia kobratzeko ondorengoak aurkeztu beharko dira:

- 2105eko ekitaldian egingo diren jardueren programa, edo hala badagokio, diru laguntzaren helburu den jarduera zehatzaren programa.
- Aurrekontu xehatua.
- Helburu bererako eskatutako edota jasotako beste laguntzei buruzko zinpeko aitorpena.
- Zerga betebeharrok eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiazatzeko agiria, Udalari datu hori eskuratzeko baimena ematearen kaltetan gabe.
- Diru laguntza ordaindu beharreko banku-kontuaren gaineko ziurtagiria.

Emandako diru laguntza bakoitzaren bigarren zatia kobratzeko ondorengoak aurkeztu beharko dira:

- Jarduera txostena, ERAKUNDE ONURADUNAREN legezko ordezkariak sinatuta, hitzarmen honetan ezarritako baldintzak betetzen direla zuritzeko, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adieraziz, eta baita honako hauek ere:
  1. Partaide kopurua, elkarteko arlo bakoitzeko eta kategoriaka; eskoriatzarrak eta kanpotarrak bereizita.
  2. Denboraldiaren eboluzioa kategoriaka.
  3. Antolatutako ez ohiko ekintzak.
  4. Kirol eskolei dagokionez, egun indarrean dagoen foru agindua betetzea. Otsailaren 25eko 69/2008 Foru Dekretua.
  5. Aurreko paragafotan hizkuntza-normalizazioari buruz aipatutako baldintzak betetzea.
- Diru sarreren eta gastuen balantzea.
- Egindako gastuak zerrenda batean sailkatuta, bertan jaso beharko direlarik hartzekodunak eta beraien IFK, agiri justifikatzaileak, diru kopuruak, eta hala badagokio, ordainketa egunak.
- Emandako diru laguntzaren kontura ordaindutako ordainagiri, faktura, nomina, zerga, gizarte segurantzako kuota eta pareko froga balioa duten bestelako agiriak guztiak, merkataritzako trafiko juridikoan baliodunak badira edo eraginkortasun administratiboa badute. Aipatutako dokumentuetatik ez bada ondorioztatzen ordainketaren egiaztapena, ordainketa egiazatzeko beharrezko dokumentuak aurkeztu beharko dira. Hitzarmenean sartu ahal izango dira hitzarmena indarrean dagoen bitartean egindako gastuak baldin eta diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzak gabe erantzuten badiote, eta 2015ean ordaindutakoak badira justifikazio kontua aurkeztu baino lehen.
- Zerga betebeharrok eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiazatzeko agiria, Udalari datu hori eskuratzeko baimena ematearen kaltetan gabe.
- Helburu berarekin eskatutako edo emandako diru laguntzei buruzko aitorpena.

#### **HAMABIGARRENA.- UDAL LOKALA PREKARIOAN LAGATZEA.**

Eskoriatzako Udalak Intxaurtxueta 9 behean dagoen lokala prekarioan lagatzen dio Eskoriatza Kirol Elkarteari, egoitza soziala bertan izan dezan.

Lokalaren lagapena honako baldintza hauekin egiten da:

1. Hitzarmenaren bidez adostutako erabilpena prekarioan lagatzen da, hau da, inolako kontraprestaziorik gabe.
2. Elkarteari 2015eko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra arte lagatzen zaio lokala. Hala ere, lagapena kasu hauetan eten ahal izango da:
3. Udalak hala eskatuz gero, hiru hilabete aurretik eta horretarako interes publikoko edo gizarte-mailako arrazoiaik daudela egiaztatuta.
4. Eskoriatza Kirol Elkartea lokala itzultzen badu.
5. Eskoriatzako Udalaren kontura izango dira instalazioen mantentze-lanak, argindarra, ura, berogailua, garbiketa eta lokalari dagokion zabor-bilketa zerbitzua.
6. Udalak edo hark bidalitakoek lokalera sartzeko aukera izango dute konponketa eta mantentze lanak egin eta kontrolatzeko.

## **HAMAHIRUGARRENA.- KIROL INSTALAZIOEN ERABILERA.**

### **ERABILERA EGUTEGIA**

Eskoriatzako Kirol Elkarteko jokalari federatu guztiak, kadete mailatik senior mailaraino, Manuel Muñoz Kiroldegia erabili ahal izateko ezinbestekoa izango dute bertako abonatuak izatea. Horretarako, abonatu tarifa berezi bat ezarri da 2015eko ordenantza fiskaletan: 5 € hiruhilero, Eskoriatzan erroldatutakoentzat; eta 10 € hiruhilero, Eskoriatzanerroldatuta ez daudenentzat.

Hiruhileko tarifa hori ordaintzeko ohiko jarduerei dagokien diru laguntzatik kenduko da, bi zatitan:

1. Diru laguntzaren lehenengo zatitik, urteko lehenengo bi hiruhilekoei dagokien kuota, EKE-k 2014/2015 denboraldi hasieran pasatutako jokalari zerrendaren arabera.
2. Diru laguntzaren bigarren zatitik, hurrengo denboraldiko (2015/2016) jokalariei dagokien kuota.

Denboraldi bakoitzean, urriaren 31 baino lehen, Eskoriatzako Kirol Elkarteko kideen datuak eguneratu beharko ditu: jokalari federatuak, entrenatzaile, monitoreak eta zuzendaritzako kideak.

Eskoriatza Kirol Elkartea, denboraldia hasi aurretik, egutegia aurkeztuko dio Kirol aholkulariari, entrenamenduak edota lehiaketak direla-eta udal kirol instalazioak noiz –egunak eta orduak- erabili beharko dituen zehatztuz. Kirol aholkulariak eta kiroletako zinegotziak eskaria aztertu eta beste erabiltzaile batzuk egindakoekin bateratuko du. Ondoren, denboraldian Kirol Elkarteari dagokion erabilera-egutegia erabakiko du.

Eskoriatzako Kirol Elkartea Manuel Muñoz Kiroldegiko ordutegiaren barruan antolatu beharko ditu beti bere entrenamenduak eta partidak:

1. Astelehenak: 14:-21:00
2. Asteartetik ostiralera: 8:00-21:00
3. Larunbatak: 9:00-13:30 eta 16:00-20:00
4. Igande eta jai egunak: 9:00-13:00
5. Abuztua: 9:00-13:00 y 16:00-20:00 (asteburueta itxita)

Egutegi horretatik kanpo Elkartea kirol instalazioren bat beharko balu, eskaria kirol aholkulariari egin beharko dio, behar besteko denborarekin beste erabilera batzuekin koordinatu ahal izateko. Elkartearen beharra kiroldegiko ordutegietatik kanpo baldin bada, elkartea berak izango du instalazioaren ardura atezain barik dagoen momentu oro.

Gizarte-interes edo erabilera publikoko arrazoia behar moduan egiaztatzen baditu, finkatutako egutegiaren arabera Elkarteari utzitako kirol instalazioak erabili ahal izango ditu Udalak. Ahal bada, Udalak hilabete aurretik emango dio erabilera horren berri Elkarteari.

### **UDAL KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA.**

2015/02/24  
Ohiko Osoko Bilkura  
*Pleno ordinario*

Eskoriatzako Kirol Elkarteko jokalari federatu guztiak, kadete mailatik senior mailaraino, Manuel Muñoz Kiroldegia erabili ahal izateko ezinbestekoa izango dute bertako abonatuak izatea.

Erabilera horren kontraprestazio bezala, instalazioak erabiltzen dituen bazkide federatu bakoitzaren urteko tarifarengatik dagokiona ordaindu beharko dio EKE-k Eskoriatzako Udalari. Horretarako, 2015eko ordenantza fiskaletan hiruhileko tarifa berezi bat aurreikusi da: 5 € pertsonako Eskoriatzan erroldatutakoentzat, eta 10 € pertsonako Eskoriatzan erroldatuta ez daudenentzat.

Alde biek adostu dute urteko tasa hori bi zatitan ordaintzea, eta ordainketa hori Udal honek EKEri bere ohiko jardueretarako ematen dion diru laguntzarekin konpentsatuz egitea. Diru laguntza indarrean dagoen aurrekontuaren kargura ematen da.

Hitzarmen hau sinatuta, EKE-k bere gain hartzen du 2014ko urriaren 1ean dituen bazkide federatu guztiengatik ordainketa, diru laguntzaren lehenengo zatitik kenduko dena, eta baita 2015eko urriaren 1ean izango dituen bazkide federatu guztiengatik ordainketa ere, diru laguntzaren bigarren zatitik kenduko dena.

Hitzarmen hau sinatzerakoan Manuel Muñoz kiroldegian abonatu alta egin duten EKE-ko bazkide kopurua 2014/2015 denboraldian honako hau da: 62 jokalari Eskoriatzan erroldatuta ez daudenak, eta 14 jokalari Eskoriatzan erroldatutakoak.

Beraz, kontzeptu horregatik EKE-k Udalari diru laguntzaren lehenengo zatian ordaindu behar dion tasaren kitapena 1.380 eurokoa da.

2015/2016 denboraldiko jokalariengatik ordaindu beharreko zehaztea faltatzen da. Kopuru hori EKE-k, 2015eko urriaren 1a baino lehen, jokalari berriei buruzko datuak aurkeztutakoan kalkulatuko da, eta ohiko jardueretarako emandako diru laguntzaren bigarren zatitik kenduko da.

Horrela, %75a ohiko jardueretarako emandako diru laguntzaren lehenengo ordainketan konpentsatuko da. Gainerakoa, bigarren ordainketan. 2. ordainketaren behin betiko kitapena kalkulatzeko 2015eko urriaren 1era eguneratuko da kiroldegian abonatu beharreko jokalari federatuen kopurua.

#### **HAMALAUGARRENA.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO LANETAN ESKORIATZA KIROL ELKARTEARI LAGUNTZEA.**

Hitzarmen honetan hizkuntza normalizazioari buruz Eskoriatza Kirol Elkartea hartzen dituen konpromisoak betetzeko, Eskoriatzako Udalak behar besteko lagunza eskainiko dio Elkarteari, eta horretarako:

- Testuen itzulpena edo zuzenketa egingo du udal euskara zerbitzuak, hala behar izanez gero.
- Eskoriatzako Kirol Elkartea euskararen normalizaziorako hartutako konpromisoen jarraipena egingo du.

- Entrenatzaileen hizkuntza prestakuntza antolatzen lagunduko du.

<b>HAMABOSGARRENA.-</b>	<b>ESKORIATZA</b>	<b>KIROL</b>	<b>ELKARTEAK</b>	<b>HARTZEN</b>	<b>DITUEN</b>
<b>KONPROMISOAK.</b>					

- **KIROL ARLOAN**

1. Erantzun zibileko asegurua izatea antolatutako kirol ekitaldiei aurre egin ahal izateko. Aseguruak, gutxienez, 300.000 €-ko estaldura izan behar du. Hitzarmen honen helburu den programaren funtzionamenduaren ondorioz pertsonen eta ondasunen aurka gerta daitzeen edozein gorabehera estali beharko du asegurua, eta hitzarmena sinatu baino lehen polizaren originala edo kopia konpultsatua aurkeztu beharko da.
2. Kirol arloko jarduerak behar bezala antolatzea, kirolarien osasuna segurtasuna eta abar bermatz.
3. Eskoriatza Kirol Elkarteak Debagoienean beteko du bere jarduera eta bertoko biztanleen onura lehenetsiko du, betiere, kontuan izanda Aldundiak kirol eskolei buruz ezarritako arauak. Eskoriatzako 8 eta 12 urte bitarteko neska mutiko guztiak izan behar dute parte hartzeko aukera, eta bere jarduera eskualdera edo probintziara mugatuko da.
4. Kirol eskolak dinamizatzea, indarrean dagoen araudia (otsailaren 25eko 69/2008 Foru Dekretua) errespetatuz, federatutako taldeetako jokalarien % 100a Eskoriatzakoa izan dadin ahalegintzeko.
5. Silbestradiarekin herriko giroa suspertzea.
6. Gabez Takarraran lasterketarekin korrika egiteko zaletasuna gazteen artean suspertzea.
7. BTT martxaren bidez eguneroko joan-etorriean bizikletaren erabilera sustatzea.
8. Denboraldi bakoitzean, urriaren 1 baino lehen, Eskoriatzako Kirol Elkarteak elkarteko kideen datuak eguneratu beharko ditu: jokalari federatuak, entrenatzaile, monitoreak eta zuzendaritzako kideak.

Behar beste baimen lortzea diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.

- **EUSKARAREN ARLOAN**

Elkarteak badaki hitzarmen honetan aurreikusitako diru-kopuru osotik %8,8a (2.000 €) euskaran erabilerarekiko hartu diren konpromisoen betetze mailaren arabera emango dela. Elkarteak konpromisoa hartzen du, honako hauek betetzeko:  
Bere taldeetan 8 eta 12 urte arteko umeekin lan egiten duten entrenatzaileen %60a, gutxienez, euskalduna izatea.  
Bere taldeetan euskararen erabilera, gutxienez, %60a izatea.

Udalarekin elkarlanean diseinatutako formazioa saioetara Elkarteko entrenatzaileen asistentzia, gutxienez, %80koa izatea.

Kopuru hauek urtero egokitutako ahal izango dira.

#### ▪ KUDEAKETA ARLOAN

Eskoriatza kirol elkarteak Udalak lagatuko lokalak eta instalazioak modu egokian erabili eta zaintzeko konpromisoa hartzen du. Lokala Elkartearren administrazio- eta antolaketa-lanetarako erabiliko da eta ezingo zaio bestelako erabileraik eman. Era berean, egoera onean gorde beharko du eta beharrezkoak diren konponketak egingo ditu. Hitzarmenaren epea amaitzean, jaso duen egoera berean itzuli beharko du lokala. Ezingo du obrarik egin Udalaren baimenik gabe eta ezin-go die hirugarren batzuei erabiltzen utzi.

Diru-laguntzen helburua fiskalizatzeko lanetan Udalak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako edozein informazio eman beharko du Eskoriatza Kirol Elkarteak.

Bere jarduera burutzeko beharrezko lizenziak eta baimenak izan beharko ditu Eskoriatza Kirol Elkarteak, dagokien erakundeek emandakoak. Era berean, zuzenbide pribatuko erakundea den aldetik, ez du Udalarekiko mendekotasunik ez inolako harremanik ere, eta beraz, azken horrek ez du bere gain hartuko, ez zuzenean ez zeharka ere, Elkartearren jarduera dela-eta egiteagatik edo ez-egiteagatik gertatu litekeen kalte materialik, pertsonalik edo moralik.

#### ▪ KOMUNIKAZIO ARLOAN

Inprimatutako propagandan Eskoriatzako Udalaren logotipoa agertu beharko da laguntzaile gisa.

Idatzizko komunikazio guztiak euskaraz edo euskaraz eta gazteleraez egon beharko dira. Ele bitan dagoen kasuetan euskarari eman beharko zaio lehentasuna. Ahozko komunikazio publikoak ere, euskaraz edo ele bietan egingo dira. Ele bietan egitea erabakiz gero, lehentasuna emango zaio euskarari.

Eskoriatza Kirol Elkarteak antolatuko dituen jarduera guztiak eta horien inguruan kaleratuko duen propagandan, berdintasun- eta genero-ikuspegiak hartu beharko ditu kontuan eta hizkuntza eta irudia erabiltzean ez du inongo elementu diskriminatzailerik sartuko.

#### ▪ LANGILE BOLUNTARIOEI DAGOKIONEZ

Hitzarmenaren esparruan egiten diren jardueretan laguntzeko langile boluntarioak izanez gero, ESKORIATZAKO KIROL ELKARTEAK poliza bat egin beharko du boluntarioentzat, boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera. Era berean, inolaz ere ez da menpekotasun harremanik izango boluntario horien eta Eskoriatzako Udalaren artean.

Eta, esandako guztiarekin ados daudela egiazatzeko, alde biek hitzarmen hau sinatu dute bi alestan eta ondorio bakarrarekin, goiburuan adierazitako lekuaren eta egunean.

#### ANEXO II

2015/02/24  
Ohiko Osoko Bilkura  
*Pleno ordinario*

## Kirol instalazioak eta kirol zerbitzuak erabiltzeagatiko tasa

### KIROLDEGIRAKO TARIFAK 2015

	ERROLDATUAK			EZ ERROLDATUAK		
	Hilabe-tekoa	Hiruhi-lekoa	Hilabe-tekoa	Hiruhi-lekoa	Hilabetekoak	Hiruhilekoak
<b>BANAKAKOA</b>						
6-18 urte	10 €	15 €	60 €	15 €	20 €	80 €
> 18 urte	<b>15 €</b>	<b>35 €</b>	<b>110 €</b>	<b>20 €</b>	<b>40 €</b>	<b>140 €</b>
Langabetuek (>3 hilabete)	<b>15 €</b>	<b>20 €</b>		<b>15 €</b>	<b>20 €</b>	
Ikasleek (25 urte arte)	<b>15 €</b>	<b>20 €</b>	<b>80 €</b>	<b>15 €</b>	<b>20 €</b>	<b>80 €</b>
Ezgaituek (>% 33a)	<b>15 €</b>	<b>20 €</b>	<b>80 €</b>	<b>15 €</b>	<b>20 €</b>	<b>80 €</b>
> 65 urte	<b>15 €</b>	<b>20 €</b>	<b>80 €</b>	<b>15 €</b>	<b>20 €</b>	<b>80 €</b>
Kirol Elkarteak	<b>5 €</b>			<b>10 €</b>		
<b>FAMILIAKOA:</b> 18 urtetik beherako seme-alabak, edo langabezian edo ikasten dauden 25etik beherakoak sartzen dira. 6 urtetik beherakoek, bazkide diren gurasoak badituzte, ez dute sarrerarik ordainduko.						
Normala	<b>25 €</b>	<b>45 €</b>	<b>150 €</b>	<b>40 €</b>	<b>70 €</b>	<b>180 €</b>
Familia ugaria, monoparentala eta langabezian bikoteko bat (>3 hilabete)	<b>22 €</b>	<b>37 €</b>	<b>120 €</b>	<b>35 €</b>	<b>50 €</b>	<b>135 €</b>
Biak langabezian (>3 hilabete)	<b>15 €</b>	<b>25 €</b>		<b>15 €</b>	<b>25 €</b>	
AURRE MATRIKULA	10 €	Hileko eta hiruhileko tarifa guztietaan hasieran eta jarraipenik ez dagoenean.				

- > 65 urte:

2015/02/24  
 Ohiko Osoko Bilkura  
*Pleno ordinario*

Hileko eta hiruhileko abonuetan jubilatu tarifa onartuko da abonu denbora horretan 65 urte betetzen baldin badira. Urteko abonuan, aldiz, erreferentziazko adina urte horretako urtarriaren 1ekoia izango da, hau da, jubilatu tarifa onartzeko 65 urte izan beharko dira urte horretako urtarriaren 1ean.

<b>EGUNeko SARRERRA</b>	
6-18 urte	<b><u>3 €</u></b>
> 18 urte	<b><u>5 €</u></b>
Langabetuak eta ezgaituak	3 €
<b>10 SARRERAKO BONOa</b>	
< 18 urte	<b><u>25 €</u></b>
> 18 urte	<b><u>45 €</u></b>
<b>100 SARRERAKO BONOa</b>	300 €
<b>BESTEAK</b>	
Karneta berriztatzea	<b><u>3 €</u></b>
Dutxa	<b><u>1,5 €</u></b>

	ERROLDATUAK		EZ ERROLDATUAK	
ALOKAIRUAK (ordu bete)	Argi gabe	Argiarekin	ALOKAI-RUAK (ordu bete)	Argi gabe
Kirodegiko kantxa	<b><u>35 €</u></b>	<b><u>40 €</u></b>	<b><u>40 €</u></b>	<b><u>45 €</u></b>
Kirodegiko kantxa (egun osoa)	<b><u>1000 €</u></b>			
Kirodegiko kantxa (egun erdia)	<b><u>600 €</u></b>			
Minifrontoia	<b><u>5 €</u></b>			
Pilotalekuko kantxa	<b><u>5 €</u></b>	<b><u>10 €</u></b>	<b><u>7 €</u></b>	<b><u>12 €</u></b>
Pilotalekuko gimnasioa	<b><u>20 €</u></b>			

Igerilekuko kale bat	<b><u>50 €</u></b>
Igerileku osoa	<b><u>200 €</u></b>

Alokatzerakoan ordaindu beharreko fidantza:

- **Epe baterako alokairuak.**- Ordenantza fiskaletan lokal horretarako ezarritako hilabete bateko alokairuaren prezioa aurreratuko da, alokatutako udal lokala erabiltzeko epea amaitutakoan itzuliko dena.
- **Unean uneko alokairuak.**- Ordenantzaren fiskaletan lokal horrentzako ezarritako tarifaren %10 ordaindu beharko da.

Erreserbak kobratzeko modua eta baja eskaera

- Kobrantzak hilaren azkenetan kargatuko dira erabiltzaileak emandako kontuan.
- Baja eman nahi denean, aurreko hilaren 25a baino lehen entregatu beharko da baja eskaera kiroldeginan. Alokatutako instalazioa, aurrez baja eskatu gabe, ez erabiltzeak ez du salbuetsiko instalazio horretarako ezarritako prezio publikoa ordaintzetik.

**DEBAGOIENAKO KIROL TXARTELA.**

Abonu honen erabilera eskubideak eta betebeharrok Debagoieneko Kirol Mankomunitateak ezarriko ditu. 2015. urterako abonuen ezaugarriak honako hauek dira:

Indarraldia:

Urteko abonua.

Herritarrok **aurrez ez badu betterik adierazten, erositako kirol abonuaren indarraldia amaitzerakoan baja emango zaio.** Abonua ez da automatikoki berrituko, herritarrok berak egin eta sinatu beharko du alta berria.

**Herriko abonutik mankomunitatekora aldatzerakoan, eta baita alderantziz ere, ez da konpentsatuko bien arteko prezio differentzia.**

Mankomunitateko abonuak **norberak aukeratutako herrian ateratzeko aukera izango da.**

Jada ez da nahitaezkoa izango erroldatutako herrian abonua ateratzea.

**2015/02/24  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario**

Abonuak hiru taldetan antolatuko dira:

Bakarkakoa, haurra (18 urte arte).

Bakarkakoa, heldua.

Familiakoa (adin nagusikoak eta 18 urte arteko familia-kideak).

4 abonu mota egongo dira erabili daitezkeen kirol instalazioen arabera.

DKT Hezea. Honek baimena ematen du, udal bakoitzak ezarritako egutegi eta ordutegian, Eskoriatzako kirolegia, Arrasateko kirodegiko eremu hezea eta Oñatiako kirodegiko eremu hezea erabiltzeko.

DKT Lehorra. Honek baimena ematen du, udal bakoitzak ezarritako egutegi eta ordutegian, Eskoriatzako kirolegia, Arrasateko kirodegiko eremuko lehorra eta Oñatiako kirodegiko eremu lehorra erabiltzeko.

DKT Plus. Honek baimena ematen du, udal bakoitzak ezarritako egutegi eta ordutegian, Eskoriatzako kirolegia, Arrasateko kirodegiko eremuko biak, Oñatiako kirodegiko eremu biak eta Bergarako igerilekua eta gimnasioa erabiltzeko.

DKT Premium. Honek baimena ematen du, udal bakoitzak ezarritako egutegi eta ordutegian, Eskoriatzako kirolegia, Arrasateko kirodegiko eremuko biak, Oñatiako kirodegiko eremu biak eta Bergarako igerilekua, gimnasioa eta bainuetxea erabiltzeko.

Bergaran DKT Plus eta DKT Premium abonuak baino ez dira tramitatuko.

Prezioak honakoak dira:

	PLUS urtekoa	PREMIUM urtekoa
HAURRAK.	126.00 €	
HELDUAK.	215.00 €	259.00
FAMILIAK. (helduak eta 18 urtetik beherakoak)	392.00 €	467.00 €

# Kirol ekintzen tarifak

## 2015

	ABONA-TUAK	EZ ABONA-TUAK	ABONA-TUAK	EZ ABONA-TUAK
	HILEKO TARIFAK	HIRUHILEKO TARIFAK	HILEKO TARIFAK	HIRUHILEKO TARIFAK
Pilateseko norbanako testa, <b>30'</b>	16 €		21	
Wellness, ohiko ekintzak: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta sortu ahal diren beste batzuk, <b>2 egun, 60'</b>	36 €	97	46	124
Wellness, ohiko ekintzak: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta sortu ahal diren beste batzuk, <b>2 egun, 45'</b>	27 €	73	34	92
Wellness, ohiko ekintzak: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta sortu ahal diren beste batzuk, <b>2 egun, 30'</b>	18	49	23	62
Wellness, ohiko ekintzak: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta sortu ahal diren beste batzuk, <b>egun bat, 60'</b>	18	49	23	62
Fitness, ohiko ekintzak (spininga, body tonoa, zumba, body balanzea) entrenamendu funtzionala eta sortu ahal diren beste batzuk, <b>2 egun, 60'</b>	31	84	41	111
Fitness, ohiko ekintzak (spininga, body tonoa, zumba, body balanzea) entrenamendu funtzionala eta sortu ahal diren beste batzuk, <b>2 egun, 45'</b>	25	67	32	86
Fitness, ohiko ekintzak (spininga, body tonoa, zumba, body balanzea) entrenamendu funtzionala eta sortu ahal diren beste batzuk, <b>2 egun, 30'</b>	16	43	21	57
Fitness, ohiko ekintzak (spininga, body tonoa, zumba, body balanzea) entrenamendu funtzionala eta sortu ahal diren beste batzuk, <b>egun bat, 60'</b>	16	43	21	57
Gazte ekintzak: spininga, zumba..., <b>2 egun, 60'</b>	30	81	40	108
Gazte ekintzak: spininga, zumba..., <b>egun bat, 60'</b>	15	40	20	54
Gimnasia seniorra 60 +, <b>2 egun, 60'</b>	16	43	26	70
Adimen urrikoentzako gimnasia, <b>2 egun, 60'</b>	16	43	26	70
Running taldea, patinajea, nordic walkinga eta beste zerbitzuren bat, <b>2 egun, 60'</b>	31	74	41	111
Running taldea, patinajea, nordic walkinga eta beste zerbitzuren bat, <b>2 egun, 45'</b>	25	67	32	86
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, <b>2 egun, 60'</b>	31	84	41	111
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, <b>2 egun, 45'</b>	25	67	32	86
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, <b>egun bat, 60'</b>	16	43	21	57
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, <b>egun bat, 45'</b>	12	32	14	38
Igeriketa umeak 2-4 urte, <b>egun bat, 30'</b>	9	24	11	30
Igeriketa umeak 2-4 urte, <b>2 egun, 30'</b>	18	49	23	62

Igeriketa umeak, <b>2 egun, 30'</b>	18	49	23	62
Igeriketa umeak, <b>egun bat, 60'</b>	18	49	23	62

- Plaza erreserbatuta geldituko da izen emate orria behar bezala beteta entregatutakoan banku bidezko ordainketaren egiaztagiriarekin edo banku-helbideratzearrekin. Dokumentu biak posta elektronikoz bidali daitezke [kirdegia@eskoriaztza.eus](mailto:kirdegia@eskoriaztza.eus) helbidera. Garrantzitsua da ordainagirian ikastaroa egin behar duenaren izena agertzea.
- Ikastarorako ordaindutako dirua bakar-bakarrik jarduera ez bada egiten itzuliko da.
- Behin talde bat martxan hasiz gero hiruhilekoren batean, ikastaroa ikasturte osoan emango da, betiere, jarduera horretarako ezarritako jende kopuruaren %80a bermatzen bada gutxienez. Kontuan izango dira ikastaroan parte hartzen dutenen adina, jarduera bera beste orduren batean egotea, taldeak erabili behar zuen ordutegian egon daitekeen eskaintza, zenbat falta den ikasturtea amaitzeko eta ikastaroa nori zuzenduta dagoen.
- Jardueraren ondorioz jasan ditzakeen lesioak onartzen ditu erabiltzaileak
- Baja eman nahi denean, aurreko hilaren 25a baino lehen entregatu beharko da baja eskaera kirolegian.

HASTAPENAK	ABONATUAK	EZ ABONATUAK
2 saio (spininga, body tonoa, zumba, GAH, pilatesa, body balanzea...)	9 €	11 €
4 saio (pilatesa)	18 €	23 €

BEHERAPENAK
Fitness - wellness ekintzetan, 2. ekintzatik aurrera: %50eko beherapena merkeenean (ekintzetako bat, gutxinez, 2 egunekoa izan behar da) Zenbait ordu tartetan beherapenak (eguerdian adb. unibertsitateko ikasleentzat, hitzartutako komertzioetako langileentzat: 3 eguneko ekintza 2 egunekoaren prezioan (gutxienez 12 eta gehienez 20 lagun)

## **1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas 20/11/2014 y 9/12/2014.

## **2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA**

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 19/02/2015.

El alcalde hace saber que el pasado viernes finalizó el plazo para interponer alegaciones al presupuesto 2015 y que, no habiéndose interpuesto ninguna, se mandó el correspondiente anuncio al BOG. Cuando se publique el mismo, el presupuesto estará definitivamente aprobado.

A continuación informa que el próximo 27 de febrero se celebrará el *39º aniversario* de la proclamación de la *República Saharaui*, y señala que si no hay inconveniente por parte de ninguno se colocará la bandera en el balcón del Ayuntamiento. Nadie se muestra en contra.

**Antes de tratar el siguiente asunto del orden del día, el alcalde indica que alterará el orden de los asuntos a tratar. Dado que está presente la representante de AMUSKA, le da la palabra a la misma para que lea la declaración institucional sobre el día 8 DE MARZO.**

## **3.- DECLARACION INSTITUCIONAL CON MOTIVO DEL DIA INTERNACIONAL DE LA MUJER DEL 8 DE MARZO DE 2015.**

La representante de AMUSKA lee el siguiente texto:

*Declaración Institucional con motivo del Día Internacional de la Mujer del 8 de marzo de 2015:*

*Hay muchas cosas que celebrar y reivindicar en el Día Internacional de la Mujer, pero, sobre todo, queremos destacar las terribles consecuencias que están teniendo en la vida de las personas, y especialmente en las mujeres, las decisiones políticas que, con el pretexto de la crisis, están tomando los poderes económicos y políticos.*

*Según los discursos oficiales, la crisis se ha generado por la falta de rentabilidad de los mercados. En nuestra opinión, en cambio, estamos en crisis porque el capital está imposibilitando que se pueda tener una vida digna. En esta situación de crisis, con el fin de aumentar la rentabilidad de los mercados, se han puesto en marcha medidas de austeridad, poniendo en grave riesgo los derechos ganados durante años de lucha.*

*Pese a que en la base de la economía se encuentran las tareas domésticas y las tareas de cuidado, el sistema capitalista menosprecia tales trabajos. Quedan ocultos, no se reconocen socialmente y tampoco se pagan. Se les niega hasta el propio estatus laboral, aún sabiendo que son la base de la vida, porque se trata de las tareas que generan y mantienen la fuerza de trabajo. Y los conceptos de economía, riqueza y trabajo se relacionan con el mundo de las finanzas, el trabajo remunerado y el trabajo productivo, situándolos en el centro de todo. El mercado capitalista se sitúa en el eje de la economía, y sitúa también la vida a su servicio, en lugar de ser a la inversa.*

*Sólo teniendo en cuenta que la responsabilidad de las tareas domésticas y las tareas de cuidado se asigna principalmente a las mujeres se puede entender el lugar marginal que ocupan en el mercado y la doble explotación que padecen. En el mercado laboral, las mujeres cobran un 24% menos que los hombres. El 80,9% de las personas que trabajan a jornada parcial son mujeres. El mercado de trabajo utiliza a las mujeres como trabajadoras de segunda categoría, porque defien-*

*de que su lugar está mayormente en casa. La necesidad de superar el sistema capitalista y el patriarcado se nos revela más claramente que nunca, para poder situar así la vida en el centro de la economía, para reconocer las tareas de cuidado, para acabar con la distribución de trabajo según el sexo, y para poder vivir una vida digna.*

*Por otra parte, sí que hay cosas que celebrar este 8 de marzo. En la declaración del año anterior citábamos la contrarreforma del aborto. Celebraremos que hemos logrado paralizar esa reforma gracias a la lucha llevada a cabo por una mayoría de la sociedad, junto con el movimiento feminista. Con todo, se sucederán más ataques contra la libertad y la diversidad de las mujeres al aprobar la obligación de consentimiento paterno y materno para las menores de 16 años que quieran interrumpir voluntariamente en embarazo. Son medidas que persiguen potenciar el modelo de familia tradicional, heteropatriarcal, que sustenta el patriarcado, con el único objetivo de conseguir que las mujeres seamos esposas y madres dulces, mansas y dóciles.*

*Si hablamos de las condiciones de vida de las mujeres, no podemos olvidarnos de la violencia machista. La violencia machista constituye una expresión del sistema patriarcal, su expresión o consecuencia más grave. En 2014 la violencia machista ha matado a 5 mujeres en Euskadi y 54 más en el estado Español. En la medida en que la violencia machista no es un hecho excepcional y la vivimos en nuestro día a día, en nuestra opinión se trata de un problema de primer orden.*

*Teniendo en cuenta todo lo señalado, queremos expresar que:*

